

Fakultatean dira atzerritik etorritako udazkeneko Erasmus ikasleak

2016/09/19

Iritsi dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera atzerriko lehenengo txandako Erasmus ikasleak. Udazkeneko txanda honetan sei ikasle etorri dira gure nazioarteko programa egitera. Aurten, Herbehereak, Turkia, Alemania eta Eskoziako ikasleak dira gurera etorritakoak.

Argazkian, goiko lerroan, ezkerretik eskumara: Kaur Sharonjit (Alemania), Hanna Koltjes (Alemania) eta Carolien Koldijk (Herbehereak). Beheko lerroan, ezkerretik eskumara: Steffanie Tinge (Herbehereak), Marit de Groot (Herbehereak) eta Emel Yildirim (Turkia).

Gurera etorritako sei ikasleak propio eurentzat prestatutako Teacher education ikastaroan jardungo dira. Bigarren txandakoak, udaberrikoak, 2017ko otsailean etorriko dira. Orduan, Hezkuntza eta Komunikazio programak egin ahal izango dituzte.

Pasa den ostegunean, hilak 15, MONDRAGON UNIBERTSITATEra etorritako Erasmus ikasle guztiei harrera egin zitzaien Eskoriatzako campusean. Guztira, oraingo txandan 169 ikasle etorri dira unibertsitatara.

- Harrera ekitaldiko argazkiak.



Erasmuseko ikasleak Eskoriatzako campusean.